



ATE IREKIEN JARDUNALDIA INTERPRETAZIOA: ORGANOA

Nori zuzenduak?

Graduko ikasketak **Musikenen** egiteko interesa duten **organo** ikasleei

Sarrera probak 2021-2022 edo 2022-2023 ikasturteetan egin behar dituztenen izen-ematea onartuko da. Musikenek jasotako izen-emate kopuruaren arabera onarpen eskubidea gordeko du.

Orientazio Jardunaldi honek bi atal ezberdin izango ditu eta erabat **online** egingo da. Parte hartu ahal izateko **aurrez erreserba** egin behar da **[izena emateko orria](#)** betez. Epea **2021eko apirilaren 18an** amaituko da.

Jardunaldien helburua

Organoan Interpretazio Gradua egin nahi duten ikasleei orientazioa eta informazioa luzatzea: sarrera proben egitura, sarrera probatan eskatzen den maila eta erreperitorio egokia.

Jardunaldiaren egitura

Bilera informatibo orokorra

Apirilak 23, ostirala, 13.30etan

Ordu beteko bilera informatiboan azalduko dira **Musikeneren** nondik norakoak, Graduko ikasketa planak,osatzen duten irakasgaiak eta irakasten dituzten irakasleak, **Musikene**k eskaintzen dituen aukera eta proiektuak, sarrera proben egitura eta zehaztasunak, ikasketetan sartzeko betebeharrak eta epeak.

Espezialitateko irakasleekin saioak

LANDART, Esteban

Apirilak 24, larunbata, 10:00etan

- Graduko ikasketatan sartzeko probetan eskatzen den maila eta erreperitorioaren inguruko aholkuak.
- Proba instrumentalaren inguruko orientazio zehatza.
- Irakasleekin saio praktikoa
- Irakasleen eskutik arreta pertsonalizatua
- Topaketa bakoitzaren iraupena: ordu t'erdi inguru

Izena ematen dutenek esteka bat jasoko dute online saio bakoitzaren bezperan.

Organo jardunaldiari buruzko informazio gehiago jasotzeko jarri harremanetan Javier Pérez de Azpeitia Teklatu eta Kantu Departamentuko buruarekin: **jperez@musikene.eus**